



**EBAZPENA, 2017KO UZTAILAREN 28KOA , JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, EUSKARA-IKASTAROAK 2017/2018 EGITEKO ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUTAKOEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ARGITARA EMATEN DUENA**

Justizia Administrazioako langileen euskarazko hizkuntza-gaikuntza sustatu eta bultzatzeko asmoz, zuzendaritza honek 2017/2018 ikasturterako eskaintza egin du.

Ebazpen honen bidez euskara-ikastaroak egiteko onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartzen da, zeina ebazpen honi eranskin bezala atxikitzen zaion.

Deialdian ezarritakoa betetzeko asmoz, hona hemen zuzendaritza honek zerrendak egiteko jarraitutako lehentasun- eta baztertze-irizpideak, kode bidez laburturik eta kontuan hartutako ordenan:

Kodea	Irizpidea
1	Lehentasuna izango du bereiztutako dotazioa duen langileak eta bere kidegoari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe duenak.
2	Lehentasuna izango du lehentasunezko zat jotako organo, zerbitzu edo unitateetako langileak, horiek identifikatzen direnean.
3	Lehentasuna izango du bere kidegoari dagokion hizkuntza-eskakizunetik hurbilen den euskara-maila duen langileak. Kidegoari dagokion hizkuntza-eskakizuna edo horren baliokidea lortzen duenean, lehentasun hori galduko du.
4	Lehentasuna izango du euskararen erabilera sustatzeko programetan parte hartzen duen langileak. Kontuan izango da aurreko ikasturtean euskara-ikastaroetan, Orekaon ikastaroetan... ibili den, betiere aprobetxamendu ona izan badu.
5	Lehentasuna izango du destinoko zentroan antzinasun handiena duen langileak.
6	Lehentasuna izango du aurreko ekitaldietan eskainitako ikastaroetan aprobetxamendu onena izan duen langileak.
7	Lehentasuna izango du langile gazteenak, aurretik aipatutako irizpideak nahiko ez badira.

**5 orduko** ikastaroa egiteko baimenik ez emateko arrazoi bereziak hauek dira:

8	Aurreko ikasturtean euskara-ikastarorik egin ez izana.
9	Eskatzen den gutxieneko euskara-maila ez izatea.
10	Aurreko ikasturteko ikastaroaren aprobetxamendu egokia egin ez izana (asistentzia/maila).
11	Lehentasuna izango du derrigortasun-data duen lanpostu bat betetzen duen langileak.
12	Lehentasuna izango du kidegoari dagokion hizkuntza eskakizuna lortzetik hurbilen dagoen langileak.
13	Lehentasuna izango du euskararen ezagutza %50ekoa ala handiagoa den eskualdetan lan egiten duen langileak, Eustat-en azken biztanleen inkestaren arabera (2011).
14	Lehentasuna izango du organoan antzinasun handiena duen langileak.



**Autoikaskuntza ikastaroa egiteko baimenik ez emateko arrazoi bereziak hauek dira:**

15	Beste ikastaro mota bat egiteko ezintasuna ez egiaztatzea.
----	--

**Udako ikastaroa egiteko baimenik ez emateko arrazoi bereziak hauek dira:**

16	Organo judizialeko arduradunaren oniritzia lortu ez izana ikastaroa lanorduetan egin ahal izateko.
17	Aurreko ikasturtean euskara-ikastarorik egin ez izana.
18	Ikastaroa behar bezala garatzea eragozten duen egoeraren batean (lanaldi-murrizketa...) egotea.

**Azkenik, bestelako baztertze-irizpide batzuk ere ezarri ahal izango dira:**

19	Aurreko ikasturtean aprobetxamendua bete ez izana (asistentzia/ maila).
20	Justizia Administrazioan momentu honetan lan ez egitea.
21	Ebazpena argitaratu aurretik eskatzaileak berak eskatutako ikastaroari uko egin izana.
22	2015/2016 eta 2016/2017 ikasturteetan ikastaroari uko egin izana.
23	Mailaketa-proba egiteko zain egotea.
24	Mailaketa-proba/sarrera-proba ez egitea eta ez justifikatzea.
25	Eskatutako modulua deialdiaren eskaintzarekin bat ez etortzea.
26	Euskaltegia eta lantokia urrun egotea (20 minutu baino gehiago).
27	Zerbitzu-betebeharrak egotea.
28	Eskaera epez kanpo aurkeztu izana.
29	Ikaste-prozesua amaitu izana.

Interesdunek kodeek jasotako arrazoiari behar bezala dokumentatutako erreklamazioa aurkeztu ahal izango diote Justizia Administrazioako Zuzendaritzan 20 egun naturaleko epean, ebazpen honen argitaratze dataren hurrengo egunetik zenbatzen hasita **abuztuaren 17ra bitartean** (biak barne).

Era berean, organo judizial bereko **plantillaren %30eko muga ezartzearen ondorioz lanorduetako ikastaroetarako baimenik jaso ez duten eskatzaileek lanorduz kanpoko ikastaroa eskatu ahal izango dute**. Horretarako epea ere ebazpen honen dataren hurrengo egunetik zenbatzen hasita **abuztuaren 17ra bitartekoa** (biak barne) izango da.

**OHARRA: Guardiak eta euskara-ikastaroetara joateagatik sortutako eskariak kontuan izanda, beharrezkoa da hurrengo adieraztea:**

- 2 orduko ikastaroa egiteko baimena lortu duenak **guardiak osorik egin beharko ditu**, eta egun horretan ikastaroetara ez joateagatik asistentzia falta justifikatuta geratuko da ofizioz.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 28a.

  
**M<sup>a</sup> Isabel Gabriel Bellido**  
 JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA